Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko urtarrilaren 13a, osteguna — 8 — Jueves, a 13 de enero de 2022



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona kobratzen hasteko data finkatzea eta bidesari bideratua kobratzeko ordainlekuak ezartzea.*

Diputatuen Kontseiluak 2021eko abenduaren 28ko bileran Erabakia hartu du:

«Gipuzkoako Batzar Nagusiek azaroaren 6ko 4/2020 Foru Araua onetsi zuten, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena (2020ko azaroaren 12ko 217 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

Foru Arau horren lehenengo xedapen gehigarriak hauxe ezartzen du: «Diputatuen Kontseiluari baimena ematen zaio berak erabaki dezan zein egunetatik aurrera hasiko den kobratzen foru arau honetan arautzen den kanona. Nolanahi ere, data hori ez da izango 2022ko ekainaren 30a baino beranduago.»

Era berean, azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauaren 10. eta 17. artikuluek hau xedatzen dute:

«10. artikulua. Ordainbideak.

Ordainbide hauek ezartzen dira foru arau honetan arautzen den kanona ordaintzeko:

(...)

c) AP-8 edo AP-1 autobideetako ordainleku bideratuetan erabilitako banku txartela, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez zehaztutakoaren arabera.

17. artikulua. Datu pertsonalak gordetzeko epeak.

2. Joan-etorria egiteko unean, ibilgailuak free flow sistemari lotutako beste ordainbiderik ez badu, Diputatuen Kontseiluak erabaki bidez zehaztutako AP-8 autobideko edo AP-1 autobideko bidesari bideratuko ordainlekuetan erabilitako banku-txartela kobratzeko erabiliko da.

Txartel hau erabiliko da bidesari bideratua kobratzeko estazioetatik igaro aurreko edo ondoko 4 orduetan A-636 errepidean egindako igarotzeak kobratzeko, zirkulazioaren noranzkoaren arabera».

Bestalde, dekretu horren 11. artikuluak ezartzen du Bidegi SA foru sozietate publikoari dagokiola kanona ordainaraztea, kudeatzea eta biltzea.

Bidegi, SA foru sozietate publikoak jakinarazi du 2021eko urtarrilaren 17tik aurrera kanona kobratzeko prozesua hasteko prest dagoela.

Era berean, kobrantza mailan eraginkortasun handiagoa lortzeko eta zehapen prozedurak murrizteko, proposatu du Bergarako AP-1 autobideko eta Zarauzko eta Irungo AP-8 autobideko bidesari bideratuko ordainlekuetan erabilitako banku txartelak erabiltzea kobrantza egiteko, ibilgailuak, joan-etorriak egiteko unean, free flow sisteman lotutako beste ordainbiderik ez duenean.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

*Fijación de la fecha de inicio del cobro del canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del THG y establecimiento de las estaciones de cobro del peaje canalizado.*

El Consejo de Gobierno Foral en su sesión de 28 de diciembre de 2021 ha adoptado el siguiente Acuerdo:

«Las Juntas Generales de Gipuzkoa aprobaron la Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del Territorio Histórico de Gipuzkoa, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa núm. 217 de 12 de noviembre de 2020.

La disposición adicional primera de la citada Norma Foral establece que «Se autoriza al Consejo de Gobierno Foral para que determine la fecha de inicio de cobro de acuerdo a la presente norma foral. Dicha fecha no podrá ser posterior al 30 de junio de 2022.»

Asimismo, los artículos 10 y 17 de la Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, disponen que:

«Artículo 10. Medios de pago.

Se establecen los siguientes medios de pago para el abono del canon regulado en la presente norma foral:

(...)

c) Tarjeta bancaria utilizada en las estaciones de cobro del peaje canalizado de la autopista AP-8 o de la autopista AP-1, que determine el Consejo de Gobierno Foral mediante acuerdo.

Artículo 17. Períodos de conservación de los datos personales.

2. Cuando en el momento de efectuar el tránsito el vehículo no tenga otro medio de pago asociado en el sistema free flow, se utilizará para efectuar el cobro la tarjeta bancaria utilizada en las estaciones de cobro del peaje canalizado de la autopista AP-8 o autopista AP-1 que determine el Consejo de Gobierno Foral mediante acuerdo.

Esta tarjeta se utilizará para el cobro de los tránsitos realizados en la A-636 durante un período de 4 horas anteriores o posteriores a la realización del tránsito por las estaciones de cobro del peaje canalizado, en función del sentido de circulación.»

Por otro lado, el artículo 11 de la misma establece que «Corresponde a la sociedad pública foral Bidegi SA la exacción, gestión y recaudación del canon.»

La sociedad pública foral Bidegi, S.A ha informado que a partir del 17 de enero de 2021 está en disposición de comenzar con el proceso de cobro del canon.

Asimismo, ha propuesto, a fin de conseguir una mayor eficiencia en el nivel de cobro y reducir los procedimientos sancionadores, que tarjetas bancarias utilizadas en las estaciones de cobro del peaje canalizado de la autopista AP-1 de Bergara y autopista AP-8 de Zarautz e Irun se utilicen para efectuar el cobro cuando, en el momento de efectuar el tránsito, el vehículo no disponga de otro medio de pago asociado en el sistema free flow.

EK\CV GAO-I-2021-08380

Aurreko guztiarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak, Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* 2022ko urtarrilaren 18ko 00:00etatik aurrera, A-636 autobiako zatietan zirkulatzen duten erabiltzaileek ordaindu beharko dute Foru Arau honek arautzen duen kanona: 4/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena.

*Bigarren.* Ordainleku hauek ezartzea bidesari bideratua kobratzeko, 4/2020 Foru Arauak, azaroaren 6koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duenak, 10.c) eta 17.2 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako:

— AP-1 autobidea: Bergarako bidesari bideratuko ordainlekua.

— AP-8 autobidea: Zarauzko bidesari bideratuko ordainlekua.

— AP-8 autobidea: Irungo bidesari bideratuko ordainlekua.

*Hirugarren.* Erabaki hau Bidegi SAri jakinaraztea.

*Laugarren.* Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, horren aurretik, partikularrek aukera dute berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan, ezin izango da aukerako berraztertzeko errekurtsorik jarri berraztertzeko berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.»

Donostia, 2021eko abenduaren 28a.—Elixabete Martinez, idazkari teknikoa. (8380)

De acuerdo con cuanto antecede, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias, y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Fijar a las 00:00 horas del día 18 de enero de 2022, la fecha a partir de la cual las personas usuarias que circulen por los tramos de la autovía A-636 sujetos a pago del canon regulado en la Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del Territorio Histórico de Gipuzkoa, tendrán la obligación de abonar el canon regulado en la citada Norma Foral.

*Segundo.* Establecer las siguientes estaciones de cobro del peaje canalizado, a los efectos de lo establecido en los artículos 10.c) y 17.2 de la Norma Foral 4/2020, de 6 de noviembre, por la que se regula el canon de utilización de determinados tramos entre Beasain-Bergara de la autovía A-636 del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Autopista AP-1: estación de cobro del peaje canalizado de Bergara.

— Autopista AP-8: estación de cobro del peaje canalizado de Zarautz.

— Autopista AP-8: estación de cobro del peaje canalizado de Irun.

*Tercero.* Notificar el presente acuerdo a Bidegi, S.A.

*Cuarto.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

San Sebastián, a 28 de diciembre de 2021.—La secretaria técnica, Elixabete Martinez. (8380)